

Test 2. Gaia: Itxitura-osagaien karakterizazio termikoko entseguak

1. Baldintza estandarretan egindako entseguen ezaugarriak hurrengoak dira (erantzun egokiena aukeratu):
 - (A) Beti ez dago aplikatu daitekeen araurik, emaitzak entsegua burutzen duen teknikoaren esperientziaren arabera dira eta orokorrean egoera klimatikoen menpe daude.
 - (B) Prozedura zehaztua eta mugatua, emaitzen helburua trazabilitatea izanik.
 - (C) Prozedura zehaztua eta mugatua, baldintza kontrolatuean egiten dena.
 - (D) Prozedura zehaztua eta mugatua, emaitzen helburua trazabilitatea izanik eta baldintza kontrolatuean egiten dena.

2. UNE-EN 12667:2002 arauaren arabera burututako entseguak hurrengoak neurtzen du:
 - (A) Geruza anitzeko itxitura opakoen transmitantzia termikoa.
 - (B) Beira-sistemen erresistentzia termikoa.
 - (C) Material homogeneoen eroankortasun termikoa
 - (D) Fatxada aktiboen portaera termikoa.

3. Paslink entsegu-zelula hurrengo motako entseguak egiteko erabiltzen da:
 - (A) Egoera egonkorrean eta ingurune-baldintza kontrolatuean
 - (B) Egoera iragankorrean eta kanpo-baldintza meteorologikoen eraginpean.
 - (C) UNE-EN ISO 12567-1:2011 arauaren arabera
 - (D) Entseguko laginaren erresistentzia termikoa lortzeko bakarrik

4. "Co-heating" teknikak hurrengo kalkulatzeko baliogarria da (erantzun egokiena aukeratu):

- A** Transmisio-galerak barne hartzen dituen bero-galera koefizientea
- B** Transmisio- eta aireztapen + infiltrazio-galerak barne hartzen dituen bero-galera koefizientea.
- C** Transmisio- eta infiltrazio-galerak barne hartzen dituen bero-galera koefizientea
- D** Infiltrazio-galerak barne hartzen dituen bero-galera koefizientea.

5. EN 13187:1998 arauak hurrengo entseguaren prozedura definitzen du:

- A** Termografia infragorria
- B** Gas-trazatzaileak
- C** Aireztatze-atea
- D** Co-heating.